

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

23.060 lan-istripu izan ziren iaz Nafarroan, 2010ean baino 3,5 gutxiago

Heriotzak eragin zituen istripuen kopurua ere 14tik 10era jaitsi zen

Martes, 20 de marzo de 2012

2011ko urtarrila eta Abendua artean, Nafarroan 23.060 lan-istripu izan zen; aurreko urtean 23.885 izan ziren, hau da, % 3,5 jaitsi da, Nafarroako Lan Osasuneko Institutuak egindako [behin-behineko txosten](#)aren arabera. Heriotzak eragin zituen istripu-kopurua ere 14tik 10 era jaitsi zen 2011an.

Istripu guztietatik, 7.716 bajarekin izan ziren (2010ean baino % 7 gutxiago; urte hartan 8.337 izan ziren), 769 (904 aurreko urtean) "in itinere" izan ziren, hau da, lanetik etxerako bidean edo alderantziz, eta 10 heriotza izan ziren ezbeharrez: 9 bajarekin (6 eraikuntza-sektorean eta 3 zerbitzutan) eta bat in itinere.

Jaitsiera jarduera ekonomikoko sektore guztietan gertatu zen, arinetan eta heriotzetan (823 eta 4, hurrenez hurren), nahiz eta larrialdietan igoera txiki bat ikusten den (81; 2010ean 79 izan ziren).

Istripu horietarako gertakari-indizea ere (mila langileko istripuak) % 6,8an jaitsi da (35,8; 2010ean 38,4 ziren). Heriotza eragin duten indizearen jaitsiera garrantzitsua ere nabarmendu behar da (% 17,9an), nahiz eta larrietan igoera txiki bat izan (% 5). Jaitsiera sektore guztietan gertatu da, aldaketa txiki batzuekin, aipagarriena nekazaritzakoa izanik (% 15,7); atzetik datoz zerbitzuak (% 7,2), industria (% 5,7) eta eraikuntza (% 1,6).

Ezbehar-kopuruan jaitsiera handienak izan zituzten jarduera ekonomikoen artean nabarmentzen dira: higiezin jarduerak (46,1etik 14,5 istriputara mila langileko); publizitatea eta merkatuen azterketak (21,8tik 9,9ra); ordenagailuen konponketa, norberaren gauzak eta etxean erabiltzeko gaiak (57,7tik 30,2ra); edo posta eta postetxetako jarduerak (69,4tik 49,4ra). Aldiz, ezbehar-mailan igoera handiena izan dute: ehunen industrian (31tik 51,8ra); larruaren eta oinetakoen industrian (29tik 57,9ra); hondakinen bilketan, tratamenduan eta kentzean; balorizazioan (54,3tik 71,2ra); eta aire-garraioan, batere ez izatetik 22,6ra pasa da.

Lesio-mota eta enpresen tamainaren arabera

Istripu-agiria eragin zuten lesioei dagokienez, ohikoenak "dislokazio, zaintiratu eta bihurrituak" izan ziren, % 45,2arekin, eta "azaleko zauri eta lesioak", % 39,1arekin. "Gehiegizko ahalegin fisikoa, trauma psikikoa" izan zen lesionatzeko era sarriena (% 39,5); jarraian, "geldirik dagoen objektu baten gainean edo haren aurka zapaltzea" (% 20,4) eta "mugitzen ari den objektu baten aurkako talka" (% 18,6).

Bestalde, gaineratu behar da istripuen erdia baino gehiago (% 54,6) 50 edo langile gutxiagoko enpresetan gertatu zela, ia laurden bat 6 hilabete baino gutxiagoko antzintasuna duten pertsonetan (% 23,2), eta ia heren batek urtebete baino gutxiago zeraman lanean (% 32,5). Istripuen % 17,7 gazteen artean (25 urte baino gutxiago) edo 55 urte baino gehiagokoen artean gertatu zen. Istripu guztien gizon-emakume arazoia 3koa da eta hildako 9 pertsonetatik bat bera ere ez zen emakumea, eta izandako 67 zauritu larrietatik 4 baino ez ziren emakumeak.

Emigratzaileak diren langileen istripua kopuru guztiaren % 14 izan zen: zertxobait handiagoa istripu larrietan, nahiz eta hildakorik ez izan.

Urtarriletik abendura izandako istripu guztietatik, 226 langile autonomoei dagozkie. Aldi horretan ez zen hildakorik eragindako istripurik izan sektore horretan eta 7 istripu larri izan ziren. Ezbehar-maila 21,7 koa izan zen mila langile autonomoko.

Azkenik, 2011n zehar Nafarroako CEPROSS lan-gaixotasunen komunikazio-sisteman lan-gaixotasuneko 1.707 kasu jakinarazi ziren: 738 bajarekin. Parte-kopurua handiagoa izan zen gizonen kasuan emakumeen kasuan baino (1.037 parte gizonetan eta 670 emakumetan). Iazko aldi berarekin alderatuz, parte guztien kopuruan % 13,3ko igoera ikusten da, garrantzitsua bajarik gabekoetan (% 36,5) eta jaitsiera bat izan da baja dutenen kasuan (% 7,4).